

TURISTA ETA BIDAIARI ARDURATSUA

Bidaiari agurgarria:

«Turista eta bidaiari arduratsua» gida praktikoa duzu, eta zure bidaia esperientzia aberasgarria izaten lagunduko dizu.

Turismoaren Munduko Erakundeak emandako aholkuak dira honako hauek. Aholkuok *Turismorako Munduko Kode Etikoan* oinarrituta daude.

TURISTA ETA BIDAIARI ARDURATSUA

Bidaiatzea eta turismoa egitea garapen pertsonal eta kolektiborako bidea bezala ulertu behar dira. Adimena zabalik izanez gero, norberaren burua hezteko, elkarrenganako tolerantzia izateko eta herri eta kulturen arteko desberdintasun legítimoak eta aniztasuna ezagutu eta ikasteko balio dute.

Denok bete behar dugu funtzio bat bidaia eta turismo arduratsuan: gobernuak, enpresak eta erkidegoak, eta direnak eta bost egin behar dute hori horrela izan dadin. Baina zu zeu ere, bisitaria zarenez gero, helburu hau bete dadin ahalegindu behar zara:

1. Kontuan izan zureak ez diren beste kultura eta tradizioak: esperientzia berri bat bizi izango duzu, tokian tokiko biztanleen errespetua irabaziko duzu, eta hauek atseginez hartuko zaituzte; izan zaitez tolerantea eta errespetatu aniztasuna; erreparatu tokian tokiko tradizio eta praktika sozialei.
2. Errespetatu giza eskubideak. Esplotazio mota orok die min ematen turismoaren oinarrizko helburuei. Haurren esplotazio sexuala delitu zigorgarria da, bai burutzen den tokian, baita delitua burutzen duen egilearen jatorrizko herrialdean ere.
3. Lagundu ingurumena zaintzen. Babestu basoko fauna eta flora eta hauen habitata, eta ez erosi desagertzeko arriskuan dauden landare edo animaliekin egindako produktuak.
4. Errespetatu kultura baliabideak. Ondasun artistiko, arkeologiko eta kulturala errespetatu burutu behar dira jarduera turistikoak.
5. Zuk egiten duzun bidaiak garapen ekonomiko eta soziala eragin dezake bisitatzen duzun herrian. Erosi tokiko artisautza eta produktuak, bertako ekonomiari laguntzarren. Izan kontuan merkataritza justuaren oinarriak. Tratuan badiharduzu, kontuan hartu soldata justuaren kontzeptua.
6. Bidaiatzen hasi aurretik, jaso bisitatuko duzun herrialdeko egoera sanitarioaren gaineko informazioa eta baita larrialdietako eta kontsulaturako zerbitzuen ere. Eta zure osasunak eta segurtasunak arriskurik ez dutela izango ziurtatu behar duzu. Herrialde zehatz batera bidaiatu baino lehen egiaztatu egin behar duzu oinarrizko premiak aseko dituzula (elikadura, irisgarritasuna edo mediku zerbitzua).
7. Bildu destinoaren gaineko informazio guztia. Hartu behar duzun beste denbora bisitatuko duzun herrialdeko ohiturak, arauak eta tradizioak ulertzeko. Saihestu portaera ez egokiak, tokiko biztanleria minduta senti ez dadin.
8. Jaso bisitatuko duzun herrialdean indarrean dagoen legeriaren berri, deliturik egin ez dezazun. Ez egin droga, arma, antigualeko eta espezie babestuen trafikorik, edota arriskutsu izan daitekeen produktu eta substantziekin edo araudiak debekatzen dituenekin.